

Zereginen kudeaketa, eGelan

Irakasleentzako eskuliburua

4. bertsioa (2016/06/13)

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Birtualak landu du.

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.



Aurkibidea

Nabarmentzeko aldaketak (2.7 bertsioan)	3
Nabarmentzeko aldaketak (1.9 bertsioetik 2.5era).....	3
Zereginen ezarpenak.....	4
Izena eta deskribapena (enuntziatua)	4
Eskuragarritasuna	4
Bidalketa-motak.....	5
Feedback-motak.....	7
Lerro arteko iruzkina	8
Bidalketaren ezarpenak.....	8
Blokeatu bidalketak	12
Taldeko bidalketen ezarpenak.....	13
Jakinarazpenak	14
Kalifikazioa	15
Kalifikazio-metodoak.....	16
Errubrika bat sortu.....	17
Bete ikastaroetako errubrikak berreskuratu.....	20
Kalifikazio lan-fluxua	20

eGelan implementatutako Moodle bertsioan, aldatu egin dira zereginak konfiguratzeko aukerak; aldaketa horiei esker, hobetu egin da formularioen atal batzuen antolaketa, eta funtzionaltasun berri batzuk atxiki zaizkio, hala nola, taldeen kudeaketa eta kalifikazio-metodo berriak, ebaluazio-gidak eta errubrikak esaterako.

Nabarmentzeko aldaketak (2.7 bertsioan)


- Bidalketetan "iruzkina" ez da irakasleak desaktibatu dezakeen aukera bat; ikasleek bidalketa egin ostean beti eskuragarri duten bide bide bat baino.
- "On line" bidalketetan gehienezko hitz kopuru zehaztu daiteke
- "Feedback" aukerei dagokionez, "on line" bidalketa aukeratuz gero, "lerro arteko iruzkina" aktibatuz gero, kalifikazioa egitean bidalketaren testua feedback-eko iruzkinera kopiatuko da
- Kalifikazioa atalean, "lan fluxua" aktibatu daiteke ikasleen kalifikazioei egoera bat izendatu eta horren arabera aukeraketak egin ahal izateko. Ebaluatzaile batzuen artean kalifikazioa antolatu daiteke baita

Nabarmentzeko aldaketak (1.9 bertsiotik 2.5era)

- Jarduerak entregatzeko epea ez dago argitaratutako entregate-dataren mende, muga-dataren mende baizik. Irakasleak aukera gehiago izango ditu jardueren entrega-epearen itxiera kudeatzeko
- Moodleren 1.9 bertsioan eskuragarri zeuden zeregin-motak (Online jarduera, artxiiboak igotzea...) zeregin-mota bakarrean bateratu dira, eta horien entrega-aukerak konfiguratzeko modua dago
- Zereginen feedbackean artxiiboak atxikitze aukera dago
- Ikasleek behin betiko lanak entregatu aurretik zirriborroak entregatzeko moduan konfiguratu daitezke zereginak
- Jardueren entregak taldeka konfiguratu daitezke; horrela, taldekide guztiak nota eta iruzkin beraren arabera kalifikatzeko modua dago. Era berean, ikasle bakoitzak bere taldeak entregatzen dituen lanen berri izan dezake
- Nota erabakitze erabiliko diren ebaluazio-irizpideak ikasleei erakusteko aukera ematen duten kalifikazio-metodoak erabil daitezke: Ebaluazio-gida eta Errubrika.

Zereginen ezarpenak.

Zeregin bat sortzeko, jarduera-hautatzailea zabaltzen da, "Zeregina" aukeratzen da, eta "Gehitu" sakatzen da.




1. irudia: Zabaltu jarduera-hautatzailea

"Gehitu" sakatutakoan, zereginaren ezarpenen formularioa betetzen da. Gerora zeregin hori editatzeko, sakatu Kudeaketa Blokea > Zereginen kudeaketa > Ezarpenak editatu

Izena eta deskribapena (enuntziatua)

Formulario honen lehen atalak "Orokorra" du izena, eta bi testu-eremuk eta egiaztapen-laukitxo batek osatzen dute (ikus 2. irudia: Zeregin baten ezarpenen "Orokorra" atala)



2. irudia: Zeregin baten ezarpenen "Orokorra" atala

1. Deskribapenaren eremuan, zereginaren enuntziatua idazten da. Testu-editorea zabaltzeko, sakatu "Erakutsi edizio-tresnak".
2. Laukitxo hori sakatutakoan, ikastaroaren orrialde nagusian agertuko da deskribapena, zereginaren izenaren azpian.


Eskuragarritasuna

Hurrengo atalean, zeregina irekitzeko eta entregatzeko datak finka daitezke. Irekitze- eta entregatze-datak agertzen dira gaituta, lehenespen gisa, baita zereginaren deskribapenaren orrian entregatze-data erakusteko laukitxo ere. Ikus 3. irudia: Zereginaren eskuragarritasuna).

1. **Baimendu bidalketak, hemendik:** Parametro hori aktibo dago lehenespen modura, eta zeregina sortzen den uneko ordua hartzen du kontuan. Data atzeratuz gero, zeregina artean eskuragarri ez badago, deskribapenaren orrian informazio hori agertuko da.
2. **Entregatze-data:** Data hori lehenespen modura dago gaituta eta argitaratuta. Zereginaren deskribapenaren orrialdean, zenbat denbora gelditzen den ere ageri

da (edo entregatze-datatik zenbat denbora igaro den, gorriz). Entrega bakoitza egin den uneari buruzko informazioa ere ikusi ahal izango du irakasleak.

3. **Itxiera-data:** Atzerapenez bidalitako lanak jasotzeko muga-data da. Data hori ez da aldeaz aurretik argitaratuko zereginaren deskribapenaren orrialdean. Data horretatik aurrera, ikasleek ez dute ikusiko "Gehitu bidalketa" botoia, eta irakasleek ohar bat ikusiko dute zereginaren deskribapenaren orrialdean: Epez kanpoko entrega > Ez da onartzen beste entregarik



Eskuragarritasuna

Baimendu bidalketak 14 uztaila 2014 13 45 Gaitu 1

hemendik: ?

Entregatze-data 21 uztaila 2014 23 55 Gaitu 2

Itxiera-data 23 uztaila 2014 23 55 Gaitu 3

Deskribapena beti erakutsi ?

Bidalketaren egoera	Saiaketarik ez
Kalifikazioaren egoera	Kalifikatu gabea
Entregatze-data	astelehena, 2014(e)ko uztaila(r)en 21(a)n, 23:55(e)tan
Geratzen den denbora	7 egun(ak) 9 ordu(ak)

Ikaslearen bista

Gehitu bidalketa


Zure bidalketan aldaketak egin

3. irudia: Zereginaren eskuragarritasuna.

! Entregatze-data zehazteak ez du galarazten ikasleek bidalketak atzerapenez bidaltzea. Entregak desgaitzeko, aktibatu "Muga-data" (ikus aurreko ataleko 2. eta 3. puntuak).

Bidalketa-motak

Zereginak izango duen entrega mota aukera daiteke (ikus 4. irudia). Offline motako zereginetarako aukera guztiak markatu BARIK utzi beharko dira.




Bidalketa-motak

Bidalketa-motak On-line testua Fitxategi-bidalketak


4. Irudia: Bidalketa-motak

Moodle 2.5 bertsioan bidalketa aukeren artean "Bidalketaren iruzkinak" aukera zitekeen. Orain aldiz, Moodle 2.7 bertsioarekin iruzkinen aukera hau beti dago eskuragarri bidalketa egin duten ikasleentzat.



4.1 irudia: Bidalketaren iruzkinak

Atal honetan "gehieneko hitz kopurua" aukera azaltzen da baita. Honela ikasleek "on-line testua" motako bidalketetan hitz kopurua mugatzea ahalbidetzen duelarik.



4.2 irudia: Gehieneko hitz kopurua mugatu

4.3 irudian ikasleek jarritako hitz kopurua gainditzean ikusten duten mezua azaltzen da.

Zeregina 1

Zeregina 1

⚠ Zeregin honetarako gehienezko hitz-kopurua 200 da eta zu 400 hitz bidaltzen saiatzen ari zara. Mesedez, alda ezazu zure bidalketa eta ondoren saiatu berriz.

On-line testua

Paragrafoa ▾ **B** *I* ☰ ☰ 🔗 🔗 🔗 🖼️ 🎥 📄

Lorem ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit. Aenean commodo ligula eget dolor. Aenean massa. Cum sociis natoque penatibus et magnis dis parturient montes, nascetur ridiculus mus. Donec quam felis, ultricies nec, pellentesque eu, pretium quis, sem. Nulla consequat massa quisque sapien.

Bide-izena: p

4.3 irudia: jarritako muga gainditu izanaren mezua

Gainera, atal honetan, zeregina bidaltzeko artxiboen tamaina muga daiteke. Parametro hori 10MBn finkatuta dago, gehienez zereginetan, baina ikastarorako bestelako muga ezar daiteke (ikus Ikastaroaren kudeaketa > Ezarpenak editatu > Fitxategiak eta igoserak)

Feedback-motak

Zeregina konfiguratzeko formularioak aukera ematen du feedback-mota aukeratzeko. Notaz eta testu-iruzkinez gainera, feedback modura artxibo atxikiak bidaltzeko aukera hauta daiteke, 5. irudian ikus daitekeenez (Feedback-motak)

▼ Feedback-motak

Feedback-motak Feedback-iruzkinak Lineaz kanpoko kalkulu-orria Feedback-fitxategiak


5. irudia: Feedback-motak

Funtzionaltasun hori honako xede hauetarako erabil daiteke:


1. Ikasleek entregatutako artxiboa zereginaren dokumentuari buruzko oharrekin itzultzea ikasleei
2. Zereginaren gaineko iruzkin orokorra grabatzea audioko artxibo batean, eta feedbackari gehitzea (Moodlek ez du euskarririk era horretako artxiboetarako, eta, hala, kanpoko tresnak erabili beharko dira artxiboak grabatzeko eta erreproduzitzeko).

Lerro arteko iruzkina

Feedback-motak atalean "lerro arteko iruzkina" aktibatuz gero, kalifikazioa egitean bidalketaren testua feedback-eko iruzkinera kopiatuko da.




5.1 irudia: lerro arteko iruzkina aktibatu



5.2 Irudia: ikasleak bidalitako testua feedback atalean kopiatzen da

Bidalketaren ezarpenak

Atal honetan, zereginaren bidalketarekin zerikusia duten zenbait alderdi alda daitezke, jarraian azaltzen den moduan (ikus 6. irudia: Bidalketaren ezarpenak).



6. irudia: Bidalketaren ezarpenak

1. **Behartu ikasleak "bidali" botoia sakatzera:** "Bai" aukera markatuz gero, erabiltzaileek zirriborro bat bidaliko dute beranduen bidali beharreko zereginera. Hala, irakasleak zirriborroa ikusi ahal izango du, behin betiko entregaren aurretik. Ikasleek bi fasetan bidali beharko dute zeregina (7. irudian ikus daiteke zirriborroa bidaltzea onartu aurretik ikasleak izango duen bista).

Bidalketen egoera	
Bidalketaren egoera	Zirriborroa (bidali gabea)
Kalifikazioaren egoera	Kalifikatu gabea
Entregatze-data	asteartea, 2014(e)ko uztaila(r)en 29(a)n, 12:25(e)tan
Geratzen den denbora	6 egun(ak) 23 ordu(ak)
Azken aldaketa	asteartea, 2014(e)ko uztaila(r)en 22(a)n, 12:29(e)tan
Fitxategi-bidalketak	 texto.pptx

Zure bidalketan aldaketak egin

Behin zeregina bidalita, ezin izango duzu aldaketarik egin.

7. irudia: Ikaslearen bista, zeregina behin betiko entregatu aurretik

2. **Behartu ikasleak bidalketa-sententzia onartzera:** Zeregina bidaltzeko unean, 8. irudian agertzen den egiaztapen-laukia markatzea eskatuko zaie:

Bidali zeregina

* Confirmando que este trabajo es de elaboración propia, excepto aquellas partes en las que haya reconocido la autoría de la obra o parte de ella a otras personas.


Ziur al zaude zure lana bidali nahi duzula kalifikatzeko? Ezin izango duzu aldaketarik egin.

Formulario honetan * marka duten derrigorrezko eremuak daude

8. irudia: Ikaslearen bista, zeregina bidaltzean baldintzak onartzeko eskariarekin


3. **Saiakerak berriro ireki dira eta Saiakera kopuru maximoa:** aukera bi hauek bateraturik, irakasleak ikasle jakin bati saiakera berri bat egiteko aukera eskaintzea ahalbidetzen dio, kalifikatuta izan arren.

- a. **Eskuzko irekiera** Irekiera zeregina kalifikatzeko erabiltzen den formularioan zehazten da




9.irudia

Zereginaren ezarpenetan **Saiakerak berriro ireki dira** > **Eskuz** aukeratzean, ikasle baten zeregina kalifikatzerakoan 9.1 irudian azaltzen den **Saiakeren ezarpenak** atala azaltzen da formularioan



9.1 Irudia. Saiakeren ezarpenak

Ekintza hauek guztiak kalifikatzailean bertan ere egin daitezke, taulako lerro bakoitzak dituen aukeren bidez edo behealdean zabaltzen den menuaren bidez (ikus 9. irudian nabarmendua azaltzen den karratua).



9.2 irudia: Kalifikatzailean irakasleak dituen aukerak (eskuzko irekiera aukeratuta)

Plataformak ez du posta elektronikoko bidezko jakinarazpenik egingo 9.2 irudiko aukerak gauzatzean, jardueraren kalifikazioarekin lotura ez dutelako- ikaslearen jardueraren egoeraren berri ematen duen bistan islatuko dira (ikus 9.3 irudia).

- b. Irekiera automatikoa gainditu arte:** aukera hau markatuz gero (ikus 9. irudia) beharrezkoa da zereginaren konfigurazioan "Gainditzeko kalifikazioa"n balioaren bat zehaztea (Kudeaketa > Ikastaroaren kudeaketa > Kalifikazioak > Ikuspegi sinplea > zereginaren konfigurazioa)

Hurrengo irudian (9.3) zeregina berriz aurkezteko aukera duen ikaslearen ikuspegi azaltzen da. Alde batetik, "Bidalketaren egoera" *bidalita* izatetik *berrirekita* izatera aldatu da (1), baina aurreko bidalketatik jasotako kalifikazioa mantentzen du, aldaketarik izan ezean behintzat (2). Bestetik, lehenengo bidalketako fitxategi eta beste zehaztasun batzuk "aurreko saiakerari" buruzko atalean daude (3).


Bidalketen egoera	
Saiakera-kopurua	Hau 2. saiakera da (2 saiakera onartzen dira). 1
Bidalketaren egoera	Berrirekita
Kalifikazioaren egoera	Kalifikatu gabea
Entregatze-data	astelehena, 2015(e)ko urria(r)en 5(a)n, 11:55(e)tan
Geratzen den denbora	5 egun(ak) 23 ordu(ak)
Azken aldaketa	asteartea, 2015(e)ko iraila(r)en 29(a)n, 11:54(e)tan
<input type="button" value="Gehitu aurreko bidalketan oinarritutako saiakera bat"/>	
Honek kopiatuko ditu aurreko bidalketaren edukiak bidalketa berri batera, horren gainean lan egin dezazun.	
<input type="button" value="Gehitu beste saiakera bat"/>	
Honek bidalketa huts bat sortuko du, horren gainean lan egin dezazun.	
Feedbacka	
Kalifikazioa	49,00 / 100,00 2
Noiz kalifikatua	asteartea, 2015(e)ko iraila(r)en 29(a)n, 11:54(e)tan
Aurreko saiakerak	
<input type="button" value="1 saiakera: asteartea, 2015(e)ko iraila(r)en 29(a)n, 11:53(e)tan"/> 3	ikaslea 2 barruan da (Irten)

9.3 irudia: Bidalketaren egoera ikasle ikuspegiaren saiakera berria baimendu ostean

Blokeatu bidalketak

****NOTA:** Atal hau ez da zehazten gai zerrendan, baina gaiarekin duen erlazioagatik hemen sakonduko dugu.


Behin irakasleak ebaluazioa egin ondoren edo beste edozein arrazoigatik, komenigarria litzateke bidalketa berriak blokeatzea (10. Irudia).



10. irudia: Blokeatu bidalketak.

Ikasleak kalifikatua izan ostean bere bidalketa aldatzen jarrai dezake; honek bi ondorio ditu: 1) irakasleari zeregin hau *kalifikatzeke* azalduko zaio berriro 2) kalifikatu ziren edukiak desagertu eta bidalketa berriak gehitutakoagatik ordezkaturako dira. Hau ekiditeko kalifikatutako ikasleen bidalketak blokeatu daitezke.

Azkenik, ikasleen bidalketak kalifikatzeko unean iragazkiak erabiltzea lagungarria izan daiteke (10.1. irudia).




10.1 irudia

Taldeko bidalketen ezarpenak

Taldeko bidalketen ezarpenei esker, taldeka egin ahal izango dira bidalketak nahiz kalifikazioak. Kontuan hartu beharra dago atal honetako aukera batzuk beste elementu batzuen mende daudela (ikus 11. irudia: Taldeko bidalketen ezarpenak). Zer ezarpen aukeratzeko den, halako portaera izan dezake zereginak.

1. **Taldeko bildaketa:** Aukera hau ezartzeko, ezinbestekoa da ikastaroan taldeak egotea eta "Talde-modua" aukeratu izatea Moduluaren ezarpen bateratuak atalean. "Ikasleek taldeka bidaliko dute: Bai" aukeratu gero, "Taldeek elkar ikusten dute" izango da "Talde-modua", automatikoki. Zereginari dagokionez, ez da bereizten "Talde bereiziak" eta "Taldeek elkar ikusten dute". Beraz, ikasleek ezingo dute sartu beste talde batzuek entregatutako zereginetara.
2. **Taldekide guztiek bidalketa egin behar dute:** Aukera hori desgaituta egongo da "Behartu ikasleak "bidali" botoia sakatzera" aukeran "Ez" markatuz gero.




11. irudia: Taldeko bidalketen ezarpenak

Bi aukerak konbinatuta, honako kasu hauek bereizten dira:

- 1. KASUA: Taldekako bidalketa, baina ez da nahitaezkoa taldekide guztiek bidalketa egitea. Hala, nahikoa izango da eskatutako bidalketa taldekide bakarrak egitea. Gainerako kideek ikusi ahal izango dituzte bidalitako artxiboak, baina EZ dute jakingo nork bidali dituen.
- 2. KASUA: Taldekako bidalketa, taldekide guztiek bidalketa egiteko betebeharrarekin. Aukera hau gaitzeko, "Bai" markatu beharko da "Behartu



ikasleak “bidali” botoia sakatzera” aukeran. Hala, zereginean artxibo bat bidaltzea eskatuz gero, taldekide batek igoko du artxiboa, baina gainerako taldekideek entregaren botoia sakatu beharko dute. Bidalketa nork berretsi ez duen jakingo dute ikasleek horrela.



12. irudia: Ikasle baten nota talde osoari aplikatzeko aukera

“Taldekoko bidalketa” aukeran “Bai” markatuta egonez gero, ikasle bakoitzaren kalifikazioen atalean “Kalifikazioak eta feedbackak talde osoari aplikatu” aukera markatuta egongo da, lehenespenez modura. (ikusi 12. irudia).

Jakinarazpenak


Atal honen bidez, irakasle rola duten guztiek ikasle bakoitzak zereginean bidalketa egiten duen bakoitzean jasotzen dituzten jakinarazpenak konfiguratzeko aukera azaltzen du (1. eta 2. aukerak). 3. aukerak gainera, ikasleek jasoko duten jakinarazpena konfiguratzeko aukera ematen du (Moodle 2.7ko aukera berria)..



13. irudia: Entregari buruzko berriak eta jakinarazpenak


Kalifikazioa

Atal honetan, garrantzizko zenbait aukera txertatu dira:



14. irudia: Kalifikazioa ataleko aukerak

1. **Kalifikazioa;** Izen-eskala bat (A), "Kalifikaziorik ez" aukera (B- "bat ere ez") edo zereginerako gehieneko nota bat (puntuazioa/zenbaki-eskala) (C) zehazteko aukera ematen du (ikus 15. irudia). Zeregina sartuta dagoen Kalifikazio-liburuko kategorian "Kalifikazioen batura" metodoa erabiliz gero, zenbaki-eskalaren gehieneko balioa aldatzea modu egokia da zeregin jakin horrek beste zeregin batzuekiko duen pisua haztatzeko.



15. irudia: Kalifikazio-aukerak

2. **Kalifikazio-metodoa:** Zuzeneko kalifikazio sinpleaz gain, alegia, entregatutako zereginari nota jakin bat esleitzeaz gainera (zenbakia, letra, eskala...), beste bi metodo erabil daitezke, aukeran: Ebaluazio-gida eta Errubrika.
3. **Kalifikazioa-kategoria:** Menu honek aukera ematen du zeregina Kalifikazio-liburuko kategoria jakin bati atxikitzeko. Kalifikazio-liburuaren Bista Sinplean ere egin daitezke aldaketa horiek.

4. **Ikasleen nortasuna ezkutatzea (kalifikazio itsua)** : Ebaluatzaileek ez dakite ikasleak nortzuk diren. Kalifikazioa konfiguratu eta abiatutakoan, aukera hori blokeatuta geldituko da, eta ez da izango hura aldatzeko modurik.
5. **Erabili kalifikazio lan-fluxua:** bidalketak kalifikazio prozesuan duten egoeraren arabera sailkatzeko aukera ematen du.

Kalifikazio-metodoak

Menu zabalgarri honen bidez, Moodleko ebaluazio-metodo tradizionala ez ezik irakasleak nota bat esleitzen dio zereginari, zenbaki, izen edo letren araberako eskala bati –, nota zehazteko ebaluazio-irizpideak ikasleei argiago erakusten dieten beste metodo batzuk aukera daitezke: Ebaluazio-gida eta Errubrika.


Zuzeneko kalifikazio sinplea

Ebaluatzaileak kalifikazio-aukeran hautatutako eskalako nota aukeratzen du menu zabalgarrian (ikus 15. irudia: Kalifikazio-aukerak).

Ebaluazio-gida

Kalifikazio-metodo hau aukeratuta, ebaluaziorako irizpideak zehaztu daitezke (ikus 16. irudia: Ebaluazio-gida sortzeko formularioa).

Ebaluazio-gida bat sortzeko, ezarpenen formularioa bete, hautatu "Ebaluazio-gida" aukera, eta sakatu "Gorde aldaketak eta erakutsi". Hurrengo orrian, aukeratu "Sortu ebaluazio-gida bat hutsetik". Formularioak honako aukera hauek ematen ditu:



16. irudia: Ebaluazio-gida sortzeko formularioa

1. Ebaluazio-irizpide bat sortzea, honako osagai hauek kontuan hartuta: irizpidearen izena, ikasleentzako deskribapena, ebaluatzaileentzako deskribapena eta gehieneko puntuazioa.
2. Irizpideak gehitzeko botoia

3. Maiz erabiltzen diren iruzkinak, ebaluazioa egiteko unean erabiltzeko
4. Zeregina egiten ari diren bitartean irizpideak eta horien puntuazioak ikasleei erakusteko aukerak.

Errubrika bat sortu

Kalifikazio-metodo hau aukeratuz gero, taula batean erakuts daitezke ebaluaziorako oinarri harturiko irizpideak eta adierazleak.

Errubrika bat sortzeko, bete **ezarpenen** formularioa, hautatu "Errubrika" aukera, eta sakatu "Gorde aldaketak eta erakutsi" (Kudeaketa > Zereginaren kudeaketa > Ezarpenak editatu > Kalifikazioa). *Gorde* sakatu ondoren "Kalifikazio aurreratua"ren aukeren orrialdea sakatuko dugu. Hemen gure aukera – Errubrika- agertuko da eta berau editatzeko "Definitu beste kalifikazio metodo bat hasieratik" sakatuko dugu.



17. irudia: Sortu kalifikazio-formulario bat hasieratik (hutsetik).

Momentu honetan errubrika definitzen ez badugu beste aukera bat ere badugu, hala nola: **Kudeaketa > Zereginaren kudeaketa Kudeaketa > Zereginaren kudeaketa > Kalifikazio aurreratua** .




18. irudia: Kalifikazio aurreratua

Oso esanguratsua izan ez arren, "Kalifikazio aurreratua" aukerak aurkezten duen informazioa ezberdina da zereginaren ezarpenetan aukeratutako kalifikazio-metodoaren arabera

1. Zereginaren kudeaketa > Kalifikazio aurreratua aukeran sakatuz gero beste orrialde bat zabalduko da non hiru kalifikazio-metodoen artean aukeratu ahal izango den, hau da: Ebaluazioa-gida, Errubrika, Kalifikazio zuzen arrunta. Aukeraketa hau zereginaren "ezarpenak editatu"z ere egin daiteke.
2. Aurretiaz Errubrika metodoa aukeratu baldin bada "Kalifikazio aurreratua" aukera triangulu bat aurretik duela azalduko da eta honi esker "Zehaztu errubrika" zabaldu edo ezkutatzera ahalbidetuko duelarik"

Horrela, errubrika osatzeko eta konfiguratzekeo formulariora sartuko gara. 19. irudian, errubrikaren lerroak (irizpideak) eta laukiak (mailak) eraikitzekeo aukerak ikusten dira.



19. irudia: Errubrikaren lerroak (irizpideak) eta laukiak (mailak) eraikitzekeo aukerak.

Jarraian, errubrika konfiguratzekeo formularioan, zeregina egin bitartean errubrikaren elementuak bistartzeko aukera batzuk azaltzen dira.

Errubrikaren aukerak

Mailentzako orden-mota: Behetik gora puntu-kopuruaren arabera ▾

- Utzi erabiltzaileei moduluan erabilitako errubrika aurreikusten (bestela, errubrika kalifikatu ondoren baino ez da ikusiko)
- Erakutsi errubrikaren deskribapena ebaluatu bitartean
- Erakutsi errubrikaren deskribapena ebaluatutako erabiltzaileei
- Erakutsi maila bakoitzeko puntuak ebaluatu bitartean
- Erakutsi maila bakoitzaren puntuak ebaluatutako erabiltzaileei
- Baimendu kalifikatzaileari irizpide bakoitzerako testu-iruzkinak gehitzea
- Erakutsi iruzkinak ebaluatutako erabiltzaileei

20. irudia: Errubrikaren aukerak

Kalifikazioa egitean, ebaluatzaileak laukien gainean sakatuz aukera dezake irizpide bakoitzean zer maila eman. Irizpide bakoitzerako iruzkin bat ere gehitu dezake.

Criterios para evaluar la parte de la nota final correspondiente al trabajo en equipo

Participación	Su participación en los grupos de trabajo es escasa 0 puntos	Su participación en los grupos de trabajo es regular 1 puntos	Su participación en los grupos de trabajo es muy buena 2 puntos	Has participado en el trabajo en equipo pero no has mantenido un ritmo de trabajo constante.
----------------------	--	---	---	--

21. irudia: Errubrikaren kalifikazioa

Ikasleek beren ebaluazioari dagokion taula osoa ikus dezakete, baita iruzkinak ere.

Comentario

Calificación

Criterios para evaluar la parte de la nota final correspondiente al trabajo en equipo

Participación	Su participación en los grupos de trabajo es escasa 0 puntos	Su participación en los grupos de trabajo es regular 1 puntos	Su participación en los grupos de trabajo es muy buena 2 puntos	Has participado en el trabajo en equipo pero no has mantenido un ritmo de trabajo constante.
Regularidad	Presencia escasa (participa menos de dos días a la semana) 0 puntos	Presencia media (participa entre 3 y 4 a la semana) 1 puntos	Presencia alta (participa más de 5 días a la semana) 2 puntos	Tu presencia en el curso ha sido esporádica
Calidad de las aportaciones	Las aportaciones que realiza son poco interesantes 0 puntos	Las aportaciones que realiza son interesantes 1 puntos	Las aportaciones que realiza son muy interesantes 2 puntos	Tus aportaciones demuestran reflexión y aplicación

50,00 / 100,00



Calificado sobre: viernes, 30 de mayo de 2014, 15:52

Calificado por:  Ramón Ovelar

Comentarios de retroalimentación: Debes implicarte más

22. irudia: Ikasleak feedbackaz izango duen bista.

Kalifikazio-liburuan errubrikak kalkulaturako zenbakizko kalifikazioa eta feedback-iruzkina besterik ez zaizkio erakutsiko ikasleari (iruzkinak zereginean txertatutako feedbackean ere agertzen ziren).

aceptacion_grupos				
 rúbrica	50,00	0-100	50,00 %	Debes implicarte más
 Total del curso	61,67	0-100	61,67 %	

23. irudia: Errubrikaren kalifikazioa, Kalifikazio-liburuan: ikaslearen bista.

Bete ikastaroetako errubrikak berreskuratu

eGelan ez dago errubriketarako txantiloirik, gela guztietarako eskuragarri izango liratekeelako eta kudeatzen oso zaila izango zelako. Baina, irakasleak badu beste zeregin batzuetan erabilitako errubrika errekuperatzeko aukera. Horretarako "sortu beste kalifikazio metodo bat txantilo batetik" aukeratu beharko da.

Kalifikazio aurreratua: Galdetegi bat eratuz (Bidalketak)

Aldatu kalifikazio-metodoa beste honetara ? Errubrika



Definitu beste kalifikazio-metodo bat hasieratik



Sortu beste kalifikazio-metodo bat txantilo batetik

Mesedez, ohartu une honetan kalifikazio aurreraturako formularioa ez dagoela prest. Kalifikazio arunta metodoa erabiliko da formularioa egoki egon arte.

24. irudia: Errubrika aurreko txantilo batetik sortu

Ondoren zabaltzen den orrian "neure formularioak ere barne" aukeratu eta "Bilatu" gainean sakatu

▼ **Bilatu kalifikazio-formularioak** ?


Neure formularioak ere barne

25. irudia: "Neure formularioen bilaketa"

Aurretik aipatu bezala, bilaketa hau ez da irakasle rola izandako ikastaro guztietako errubriketara zabaltzen, baizik eta erabiltzaileak sortutako jarduera/zereginetan daudenetara baino. Hori dela eta, beste erabiltzaile batzuekin batera edukiak sortuz gero, baliteke errubrikaren bat berreskuratu ezin izana.

Kalifikazio lan-fluxua

Bidalketak kalifikazio prozesuan duten egoeraren arabera sailkatzeko aukera ematen du. Lehenbizi, jardueraren ezarpenetan aukera hau aktibatu beharko da




Kalifikazio itsua ? Ez

Erabili kalifikazio lan-fluxua ? Bai

Erabili kalifikazio-esleipena. ? Ez

26. Irudia: kalifikazio lan-fluxua aktibatuta

Bidalketa bakoitzaren kalifikazio formularioan egoera zehaztu ahal izango da. Kalifikazio egoera "Ikusgai" denean soilik, ikasleek nota ikusi eta jakinarazpenak jasoko dituzte.



Kalifikazioa

Kalifikazioa (100-(e)ra arte) ?

Kalifikazio lan-fluxuaren egoera ? Kalifikatzen

Oraingo kalifikazioa kalifikazio-liburuan

Ikaslea kalifikatzen

Feedback-iruzkinak

Jakinarazi ikasleei Ez

Jakinarazi ikasleei Bai

27. irudia: kalifikazio baten izan daitezkeen egoerak

Zeregin honen kalifikazio-taulan kalifikazioaren egoerari buruzko informazioa azaltzen da. Aukeratutako bidalketen egoera aldatzeko aukerarik ez da, horretarako bakoitzean sartu eta aldatu beharra izango da.

Bukatzeko, ohiko iragazkiez gain (ikusgai, kalifikatu beharrean...) lan-fluxuan nola antolatu diren arabera zereginak ebaluatzeko aukera berria azaltzen da.

Aipatu beharra dago, ebaluatzaile batzuen artean kalifikazioa antolatu daitekeela, bakoitzari bidalketa jakin batzuk zehaztuz. Ikastaro honetan ez dugu erabilpen honetan sakonduko – ondoko bideo laburrean azaltzen da honi buruzko informazioa (Moodle 2.6 Highlight: Marking workflow and Allocated markers https://www.youtube.com/watch?v=2dcnTtp_W7c).

Izena / Deitura	E-posta helbidea	Egoera	Kalifikazioa	Editatu
ikasle2 ikasle2	mail2@mail.edu	Kalifikatzeko bidalia Kalifikazioa osatua	100,00 / 100,00	Editatu ▾
ikasle3 ikasle3	mail3@mail.edu	Kalifikatzeko bidalia Kalifikatzen	-	Editatu ▾
ikasle4 ikasle4	mail4@mail.edu	Kalifikatzeko bidalia Kalifikatu gabe	-	Editatu ▾

28. irudia: "lan fluxua" azaltzen den zutabea

▼ Aukerak

Zereginak orriko

Iragazkia

Lan-fluxu iragazkia

Kalifikazio azkarra ?

Show only active enrolments ?

- Iragazkirik ez
- Iragazkirik ez
- Kalifikatu gabe
- Kalifikatzen
- Kalifikazioa osatua
- Berrikusten
- Ikusgai jartzeko prest
- Ikusgai

29. irudia: lan-fluxu iragazkia